



**EUSKARAREN ETA KAUKASO-KO HIZKUNTZEN  
BEREJKUNEAZ**

1977-XI-4

*Txillardegia*

Lehengo eguneko biltzarrean puntu hau aipatzeko parada izan nuen; eta biltzarraren ondoren jaso ditudan oharrek idarokitzen didatenez, EUSKARA eta KAUKASO-ko HIZKUNTZAK noiz berezi ote ziren delako arazoari buruz lerro hauek egitea egoki gertatuko bide da.

Jakina:

1/ Hemen erabiliko dudan azterpidea (Swadesh-ena) ez da inondik ere "azken hitza". Egia *baldin* bada, alegia, halako batez Euskara eta Kaukasokoak berezi egin zirela, orduan Swadesh-en legeak berezkune horri buruzko kalkulu bat eskaintzen du.

2/ Swadesh-en hitz-lerrokada horiek (hiruek, egia esan; baina lehenengo biek bereziki) kritika-olatu bat sortu dute. Hemen emango den ondorioa, hortaz, ongi dakit, *gutxi gora-beherako ideia bat* besterik ez da.

3/ Hitz "cognate" delakoan finkaerak ere ba ditu lanak; eta Lafon-ek berak aipatzen ditu oinarritzat hartua dugun bere lan hartan berak zituen *zalantzak*.

Ohar hauek eginda, hortaz, ikus dezagun Swadesh-en legeak zer dioen euskarari buruz.

Hitz "cognate"en bilaketan LAFON hartu dugu gidari: "Etudes Basques et Caucasiques", Salamanca, 1952.

Swadesh-en Legeari dagokionez, berriz:

$$d = \frac{\log c}{2 \cdot \log r}$$

haren HIRUGARREN hitz-lerrokada erabiltzen dugu (lehenengoak urte gutxiago ematen du; baina Swadesh-ek berak utzia du hirugarren honen truke).

Hirugarren hitz-lerrokada erabiliz gero, Swadesh-ek balio hau proposatzen du  $r$  -ri buruz:

$$r = 0,854 \pm 0,004$$

Hortaz:  $r_1 = 0,858$  ; eta  $r_2 = 0,850$ .

$c$  berriz ("cognate" edo hitz jatorrikideen kopurua, zati hirugarren oinarri-kopurua, 100 alegia) =  $n/100$ .

$n$  hau Lafon-en lanetik hartzen dugu; eta 6-tatik 9-tara har daiteke; erdibidean  $c = 0,075$  hartzen dugularik. (=  $(6 + 9)/(2 \times 100)$ )

Lafon-ek aurkitu uste zituen hitz jatorrikideak hauek dira:

- 1 - SU (= 'fire', Sw.)
- 2 - GOGO (= 'heart', Sw.)
- 3 - EGU- (= 'sun', Sw.)
- 4 - GU (= 'we', Sw.)
- 5 - ZER (= 'what', Sw.)
- 6 - ASE (= 'full', Sw.)

Sei "cognate" horiek ziurtzat jotzen baditugu ere, ondoko hauek, irakurleak soma dezakeenez, zalantzan jar daitezke, edo aurreko hauen kide direla esan:

- 7 - ASKI, ASKO (= 'many', Sw.)
- 8 - BIDE (= 'path', Sw.; baina alderaketa bitxi batzuen bitartez lortua)
- 9 - GOI (= 'mountain', Sw.)

Hau dela-ta, ez 6 eta ez 9 hartuz gero, 7,5 hartuko dugu hemen; eta, hortaz,  $c = 7,5/100 = 0,075$ .

Oinarritzat  $r = 0,858$  / mila urteko, hartuz gero:

$$\log 0,075 = \bar{2},874 = -1,126$$

$$\log 0,858 = \bar{1},933 = -0,067$$

eta  $d_1 = \frac{-1,126}{-2,067} = 8,4$ ; eta hortaz 8.400 urte berezkunetik.